



Olaia Prego - Ane Ortíz de Zarate  
Aixerrota BHI, 14-15

## Aurkibidea

Josu Landa .....	3
Sarrera .....	3

### *Odolbidua*

• Kokapena .....	4
• Gaia .....	4
• Argumentua .....	4
• Istorioa .....	5
• Pertsonaiak .....	6
• Egituraketa .....	8
• Baliabideak .....	8
• Iritzia .....	10
Bibliografia eta webgrafia .....	12

## Josu Landa

Josu Landa Urkijo 1960ko abenduaren 9an jaio zen Altzan, Gipuzkoan. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen eta euskal idazlea da. 1980an *Susa* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen eta 1983an izen bereko argitaletxearen sortzaileetako bat ere izan zen. *Argia* aldizkarian erredaktore lanetan ibili zen 1980-1983 bitartean eta 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* jaio zenean produkzio-buru izan zen urte batez. Orduetik aurrera, multimedia gailuen lanketaren inguruko proiektuetan eta bestelako proiektu informatikoetan aritu da.

Bere obrari dagokionez, *Odolbildua* (2002) bere nobela bakarra eta argitaratutako azken lana da. Poesia liburu bi idatzi ditu, *Ni eta nitarrak* (1979, Egilea editore) eta *Haizearen itzalak* (1980, Hordago), hain zuzen. Poesia-narrazioa ere landu du *Ipurtargi beltza. Amodiozko ipuin, poema eta marrazkiak* (1983, Susa) liburuaren bidez, eta baita saiakera ere *Gerraondoko poesiaren historia* (1983, Elkar) obraren bitartez.

## Sarrera

Josu Landaren 2002ko eleberri honetan misterioa eta intriga dira nagusi, kontrabandoa oinarri hartuta. 50eko hamarkadan Nerbioi ibaiaren eskuin eta ezker aldean gertatzen den istorio honen protagonista Mentxu dugu, kontrabandista taldearen buru dena. Emakume azkarra eta bizia da, Portugaleteko portuko kontrabandoaren hariak kontrolpean dituen, baina beti beste izen batzuen artean nahastuta. Horrela, bere bila dabiltzan guztiek, polizia barne, bera asko zelatatu arren ez dute inoiz frogarik lortu, nahiz eta begi bistan dauden. Mentxu horren jakitun da eta horretaz baliatuko da bere plan berrian, polizia nahasteko asmoz. Horretan laguntzeko, boxeo mundua ere sartzen da istorioan estalki gisa.

Nobela beltza deitu dezakegu polizia, hilketak, susmagarriak eta horiek biltzen dituen ingurune ilunaren eta estilo korapilatsuaren ondorioz. Istorioan ezer ez da dirudiena, iluntasunean murgilduta baitago.

Errealismo handia du, garai hartako gertaeretan eta ingurunean egoki kokatuta, Frankismo zapaltzailearen sasoiko zertzeladekin autoritarismo handiko garaia islatzen da.

# ODOLBILDUA

## Kokapena

50eko hamarkadako Frankismo itogarriaren garaian girotuta dago. Autoritatearen indar zapaltzaileak, sekretismoa eta portu aldeko xehekako salerosketa eta kontrabandoa ageri dira. Gerra ondoren bizi irauten duten pertsonaiak azaltzen dira, modu batean edo bestean zulotik atera direnak, gehienak kontrabando mundura bideratu behar izan dira.

Nerbioiko bi aldeak agertzen dira, Portugalete eta Bilbo gehienbat. Neguri aldea ere aipatzen da (pertsonaia nagusiaren jatorria) eta baita Areetako eta Algortako aldea ere, Algortako elizan gertatzen baita istorioa korapilatzen duen hilketa. Bartzelonaren aipua ere egiten da, bertan ezagutu zutelako elkar pertsonaia nagusiek (Mentxu eta Santos).

## Gaia

Istoria kontrabandoan oinarrituta dago, garai hartako egoeraren ondorioz ohikoa zelako; horrez gain, pertsonaien justizia nahia ere agertzen da. Garai hartan ohikoa zen bizi irauteko sena nabarmentzen da, Mentxu eta Santosen gerra batailoiei garaiak kontatzen diren pasarteetan, adibidez.

## Argumentua

Mentxu emakume gaztea da, bere lagun Santosen familiarekin bizi dena, baina bere etxean, beheko solairu osoan botika eta goiko solairuetan ostaturia duen etxean. Gau batean morroi batekin geratu eta gero Algortako elizan hilda agertzen denean, poliziak Santos atxilotu eta hortik aurrera polizia beraien atzetik dutela konturatzen da Mentxu. Mentxuk ahal duen guztia egiten du Santos libre utzi dezaten, eta lortutakoan plan bat otutzen zaio kontrabandoan jarraitu eta polizia despistatzeko. Baina plan hori aurrera ateratzeko laguntza beharko du, eta, horretarako, Santosen seme Joseluren boxeoko txapelketa erabiliko dute poliziarentzat pantaila gisa, nahiz eta Joseluk aurkakoa pentsatu.

## Istoria

Gau batean Mentxu eta Santos gizon batekin euren itsasontzian geratu dira eta polizia beraien atzetik dutela abisatu die, baina haiek ez diote jaramonik egin. Geroago, gizon bat Algortako elizan hilda aurkitu dute, eta Santos gizon horren hilketara egotzita atxilotu egin dute. Mentxuk Santos libre uzteko bere kontaktuak erabiliz abokatu bat lortu du, eta Santos hiltzailea ez dela frogatu dute eta hitzorduko gizonak egia esan ziela ondorioztatu dute.

Santos libre uztean, poliziak Joselu erabiltzen du Mentxuren trikimailuen berri izateko, gazteari bere aitaren (Santos) onerako izango dela esanez, beti poliziaren nortasuna ezkutatuta. Mentxu horretaz konturatzean Joseluri benetan gertatzen dena kontatuko dio, lehendabizi eurek biek iraganean bizi izandakoa adieraziz.

Gerra garaian Mentxu eta Santos komunisten batailoian aritu ziren borrokan, eta haiek gerra galtzean Mentxu libratu egin zen, baina Santos gatibu hartu eta izugarritzko torturak jasan zituen. Joseluk istorioa entzunda, ohartzen da aita amarekin zegoen bitartean Mentxurekin engainatu zuela. Mentxu horretaz jabetzean, Joselu bere alde jartzeko hurrengo planean sartuko du, polizia gaineratik kendu eta kontrabandoan jarraitzeko plan batean, hain zuzen. Plan horretan bakoitzak betebeharrak izango du poliziari ziria sartzeko. Joselurena aste batzuen buruan duen boxeoko txapelketa irabaztea da, hori baita planaren muina, berak jakin ez arren. Horretarako, bere entrenatzailea sobornatzen dute, poliziaren susmoa horrantz zuzentzeko. Joseluk eta poliziak benetako trukea Joseluk txapelketa irabaztean ematen dioten koparen barrukoa dela pentsatu bitartean, Mentxuk eta Santosek benetako merkantzia trukatzeko egongo dira, Santosek amarruaren parte dela uste duen arren. Eguna heltzean Joseluk bere eginbeharrekoa betetzen du, finala izan ezik gainontzeko borroka irabaziz, baina borroka aitak eta Mentxuk erosi zituztela konturatzean, saria bota egingo du eta etxera esku hutsik itzuliko da berak egin duena ondo dagoela pentsatuta.

Amaieran, benetako kontrabandoa zein den argitzen du Mentxuk, polizia boxeoko txapelketari begira zegoen bitartean, berak itsasontzi bidez 40 kilo pizarra bidali dituela, egia berak bakarrik zekiela. Gainera, Joseluri Mentxuren gaineko informazioa nork ematen zion argitzen da. Ez zen polizia Mentxuk uste zuen bezala, kriminal handi bat baizik, trafikante arriskutsua.

## Pertsonaiak

**Mentxu.** Istorioko protagonista da eta bere benetako izena Carmen Diaz de Alza da, Fonseca hasi zen “Mentxu” izenarekin deitzen. Jatorriz Neguriko familia dirudun kontserbadore eta absolutista batekoa da eta bera ere halakoa bilakatu zen Bartzelonara Farmazia ikastera joan, Santos ezagutu eta komunismora erakarri zuenean. Gerra garaian elkarrekin aritu ziren batailoi komunistan eta Santosek emaztea eta semea zituen arren, beste baten narruazalaren eta beroaren desirak amodio antzeko harreman bat izatera eramán zituen. Gerraren ondoren Bilbora itzultzean, Rafa lizentziatuak bere botikan laguntzaile gisa onartu zuen (pentsioaren truke lanean), eta hor deskubritu zuen bere botikarako sena. Tabako kontrabandoko buru bihurtu zen gurasoek errepublikanoa izateagatik arbuiatu zutenean, bere burua azpijokotan ibiltzera bultzatuta ikusi zuelako. Azkenean botika-denda propioa izaten bukatu zuen Portugaleten eta gainera ostatu bat ere ireki zuen. Gainera, bere lanetarako bitarteko asko ditu eta horietako asko adiskide baitaere, gizarteko maila altukoak barne. Emakume bizia eta azkarra da, oso pertsona txukuna. Pianoa jotzen du igandero eta edateko eta erretzeko usadioak ere baditu. Horrez gain, egunkarietako berriak, zinema kartelak etab. gordetzea gogoko du.

**Santos.** Itsasontzi patroia da *Bermejo* atoiointzietako enpresan. Antoniarekin ezkondata dago eta hamazazpi urteko semea dute, Joselu. Mentxurekin batera ostatuan bizi dira laurak. Behargin mekanikoa besterik ez zenean ezagutu zuen Mentxu eta berarekin batera gerran egon ondoren, batailoi komunistan egoteagatik kartzelan urte gogorak pasatu zituen. Bilbora itzultzean Mentxu buru zen kontrabando taldean sartu zen, baina ez zen bera bezain garbi atera, kartzelan izan baitzen berriro ere. Mentxuk hortik garbi ateratzea lortu zuen, baina beste batean ere sartu zuten Algortako elizako hilketa leporatuz. Istorioan askotan aipatzen da jendeak Mentxuren txotxongiloa dela esaten dutela.

**Joselu.** Santos eta Antoniaren semea da, 17 urte bete berri dituena. Honek ez du Mentxu gurasoek beste maite, ez da berarekin batere fidatzen. Boxeo izarra izateko ametsa du eta horretarako bidean istorioaren amaierara arte ezezaguna den gizon batek Mentxuri buruzko

kontu susmagarriak kontatzen dizkio. Helduagoa dela eta aita bezala kantrabanduko gaietan ibiltzeko gai dela erakusteko desiran Mentxuri aurre egiten dio. Mentxuk plan berrian sartzea erabakitzen du eta boxeoaren bidez planerako ustezko berebiziko ekintza usten du bere kontu.

**Antonia.** Santosen emaztea eta Joseluren ama da, Mentxuren lagun ona. Mentxuri botikan eta ostatuan laguntzen lan egiten du, beraz Mentxuri esker bizi da familia. Mentxuk ostatuari “Fonda Portabella” jarri zion izena bere omenez, Antoniaren abizena baita. Bere familia du kezka nagusia, Mentxu barne, laurak familia bat osatzen dutelako.

**Pedriño Bermejo.** Bermejo atoiontzien burua da. Santosek bere atoinontzietan lan egiten du eta Mentxuren lagun handia da. Mentxurekin maiteminduta dagoela ematen da aditzera istorioan eta Mentxuk hori erabiltzen du bere plana burtzeko ezinbestekoa den irratia lortzeko.

**Fonseca.** Batailoi komunistan hartu zuen parte Mentxu eta Santosekin batera eta denbora asko zen elkarren berririk ez zutela. Fonseca ere kontrabandoan ibiltzen dela ulertarazten da Mentxuk bere planerako laguntza eskatzen baitio. Mentxurekin ere gerra aldiaren harreman erromantikoren bat izan zutela usten da agerian, bere bisitan faborea eskatzeaz gain larrutan egiten dutelako, baina ez dute inolako konpromisorik elkarrekiko.

**Luis Bergara, “Luigi”.** Mentxuren lagun ona da, Ideal Aretoko eta Mar Zinemako burua. Pertsona ikasia da eta Mentxuren gaztetako laguntaldeko lagunetako bat. Beste kide absolutista batzuekin batera Gran Hotel-ean biltzen da eta han garaiko gai esanguratsuei buruz ibiltzen dira. Rafaren ustez “exotikoegia” da. Pertsona alaia eta dibertigarria da, baina batzuetan gehiegi beharbada.

**Rafael Lizarraga, “Rafa”.** Rafa izan zen Mentxuri botikarako sena piztu ziona bere botikan langile ibili zenean eta ordutik aurrera lagun handiak dira. Mentxuri irakasteak bere maisu sena piztuarazi zion. Horren ondoren bere bizitzako proiektu apetatsuenari ekin zion: fraile beneditarren mendetako tradizioa ikertzea, sailkatzea eta argitaratzea. Portugaletetarra zen eta Portugaleteko udalean zituen kontaktuen eta gomendioen ondorioz Mentxuk botika zabaltzea lortu zuen.

## Egituraketa

Nobela hau, nahiz eta kapitulu desberdinak eduki, pasarteka egituratuta dago, kapitulu bakoitzaren barnean pasarte desberdinak bereizten baitira, non idazleak pasarte horien arteko bereizketa egiteko lehen hitza letra beltzez, handiago eta lodiagoz nabarmentzen duen. Denek istorioa gertatzen den denbora haria jarraitzen dute, nahiz eta pertsonaia batetik bestera saltoka doan, bakoitzak momentu horretan bizi duena irakurleari adieraziz, horrela denek une bera nola bizi duten jakitea ahalbidetzen dute. Beraz, autoreak egitura lineala erabili du istorioa kontatzeko, baina pertsonaia batetik bestera saltoak egiten ditu momentuan gertatzen den guztia kontatzeko asmoz.

## Baliabideak

Prosazko lan honetan, hainbat baliabide erabili dira istorioa kontatzeko. Lehendabizi garaiari begiratuz gero, ez du inoiz urterik ez datarik zuzen aipatzen, eta horren ordez garaiari buruzko imintzioak esaten ditu; hortaz, irakurleari berak asmatzeko beharra ematen dio.

Horren adibide, Jose Luisek boxeoa utzitako garaia zela antzeman daiteke, gutxi gorabehera 1950. urtea edo pixka bat aurrerago, hori izan baitzen Edzar Charles-en aurka galdu zuen urtea:

*—Badakik zergatik utzi zuen boxeoa Joe Luisek? Zer edo zer Entzun nian beste egunean [...] —Ezer garrantzizkorik ez. Beldurra... horrelako marka bikaina lardaskatzeko arriskua, ba ei zekien ez zuela Ezard Charles garaituko. (11)*

Horretaz aparte, Frankismoaren garaiari ere erreferentzia egiten dio zeharka, istorioan adibideak txertatuz:

*Generalisimoaren plazan gramolak oraindino dantzara zekartzan gazteak, eta Mentxuk irribarre egin zuen [...] inguruko herri askotan dantzaldiak anplifikadoreetatik Radio Nacional goratuta egiten zituztela eta. (27)*



Pertsonaiak nolakoak diren ere ez ditu zuzenki deskribatzen, baizik eta irakurleak istorioa aurrera joan ahala pertsonaien izaera deskubritzen doa. Elkarrizketaz eta bakoitzak egindako ekintzez baliatzen da pertsonaien ezaugarriak adierazteko eta ez bakoitzaren deskribapen zehatzak emanez, autorearen hitzetan “personaia beraren nortasun eta konplexutasun hori, beste pertsonaiekiko harremanean eraiki nahi nuelako”. Joselu eta Mentxuren burugogortasuna esate baterako, bietako batek ere ez duenean amore ematen eta bestearen arrazoia onartzen.

Narratzaileari buruz hitz egiterakoan 3. pertsonakoa eta orojakilea da, pertsonaia nagusien hausnarketen eta sentimenduen jakitun delako. Gainera, ekintza guztien zergatiak ere azaltzen ditu, honako hau adibidez:

*Antoniak ez zuen inoiz “senar” hitza erabiltzen Mentxuri Santosen berri aipatzean [...] nahiz eta osterantzeko guztiei “nire senarra” azpimarratu ohi zien ahal zuen guztietan, seguru aski etxe berean emakume bi eta gizon bakarra bizitzeak herrian sor zitzakeen esamesen itotzeko. (17)*

Horrez gain, nobelan bizkaieraren erabilera nabarmen antzematen da, (nahiz eta idazlea gipuzkoarra izan), hori istorio kontatzen den leku geografiko eta garaiari keinua egiteko erabiltzen du, kontakizuna Portugaleten gertatzen baita. Portugaleteko inguruetan ere gertatzen da, Getxo eta Santurtzin esate baterako, eta haiek herri bizkaitarrak izanik eta 50eko hamarkadan kokatuta egotean, bertoko biztanleak ezin zuten idazlearen hizkuntzan, gipuzkeraz, hitz egin, bizkaiera izan behar zen beraien hizkera nagusia.

Gainera, gertakizunari hasiera eta amaiera emateko soinu bereizgarri bat erabiltzen du, hau da, arazoak hasi eta bukatzen direla adierazten duen soinua, Areetako kanpai hotsa, hain zuzen; eleberriaren hasieran kanpaiak jotzeari uzten diote, eta dena bukatzean berriro joka hasten dira.

Lehenago aipatutako hizkuntza dela eta, idazlea pertsonaia bakoitzaren bizitzan eta pentsamenduetan sartuta bakoitzak erabiliko lukeen hizkuntza maila ere erabili du. Joseluri dagokionez, bere adineko

hizkuntza erabili du berak hitz egiten zuenean, baita berak dakien gaiei buruz ere, boxearen inguruko hizkera ere erabili du, *atake* eta *defentsa* termino desberdinak erabiliz. Edota baita Mentxuk eta Antoniak hitz egiterakoan ere beraien adineko garaiko emakumeek erabiltzen zituzten esamolde eta metaforak txertatu ditu, baita konparaketak ere, “*begininiek alde batera eta bestera ñirñirtutako barrealdiek labezomorroen ehizan aritzearen itxura ematen zioten*” (106) esaten duenean adibidez.

## Iritzia

Aztertu berri dugun testua Josu Landak idatzitako *Odolbildua* tituluko eleberria da. Bertan kontrabandoaz eta justizia nahiaz hitz egiten da, familia arteko loturak, boxeo eta polizia direla medio, baina abentura, misterio eta amodio kontuak ere barnean sarturik. Frankismoaren garaian kokatua, garai hartako zertzeladak sartzen ditu noiz behinka idazleak, baina orokorrean hori kenduta edozein garaitan koka daitekeen istorioa da, Euskal Herriko edozein lekutan.

Egituren aldetik begiratuz gero, hasieran nahiko korapilatsua izan daitekeen eleberria da, bai hizkuntzaren aldetik, baita idazlearen kontatzeko moduagatik ere. Liburuaren lehen orriak irakurriz gero, paisaia eta egoerak deskribatzen denbora dezente irauten duela erraz kontura gaitzke, eta horren adibide garbia hurrengoa izan daiteke:

*Ezagunaren presentziaz beste eginez ekin zion Mentxuk enkontruari, eta haren berbek ere ez zuten, antza, ardurarik lortu emakumearen balerrietan. Goiko armairutxo batean zegoen botila patxada handiz miatzeari ekin zion Mentxuk. Etiketen tamaina txikiko hizkiak irakurtzeko ere beta hartzen zuen aldizka. Isiluneak trinkotu egiten zuen gabaroteko giroa, eta barbarik ez egitea gero era plazeragoa zitzaion Mentxuri...*

(14)

Hizkuntzari dagokionez hikaren argi antzematen da elkarrizketetan, eta horrek arazoak sor lekiokete hika erabiltzen ez duen pertsonari. Adibide honetan argi ikusten da:

—*Asko maite duk aita, sinesten diat, baina hik ere sinis egidak, nik ez diat gutxiago maite...* (112)

Ilido beretik jarraituz, lekuak eta pasarteak lasaitasunez deskribatzen dituen arren, irakurleei pertsonaiei buruz berri emateko unean ez du deskribapen bat bera ere erabiltzen eta horren ordez pertsonaiak elkarrizketa eta ekintzen bidez aditzera ematen ditu. Horrek hartzailearen burua pixka bat korapilatzea eragin dezake, pertsonaia bakoitzarentzat berezkoak diren ezaugarriak besteekin nahasiz eta horrela eleberriak aurrera jarraitu ahala irakurleak egoera desberdinak ongi ez ulertzea eragiten du.

Horrez gain, aipatu beharra dago idazleak bere lehen idatzizko nobela honetan egindako lan ikaragarria, eta baita eleberriari eman nahi izan dion egituraketa ere. Lan honetan, Josu Landak istorio korapilatsua egin nahi izan du, *Argia* aldizkarirako elkarrizketan aipatu zuen bezala, ez baitzaizkio pertsonaia lauak eta istorio lauak gustatzen, nahiz eta hartzaileak obra irakurtzerakoan guztiz nahasturik uzten dituen. Baina ez hori bakarrik, elkarrizketa berean ere, lekua eta garaia erabakitzeko orduan, berak inoiz ezagutu ez dituen denbora eta agertokiak erabaki zituela argitzen du, bere burua ikerketa lan bat egitera behartuz, eta horrelako jarrerak miretsi beharrekoak dira.

Hori guztia dela eta, Josu Landaren *Odolbildua* nobela orain arte irakurritako libururik korapilatsuenaren izanik, ez diogu jende gazteari gomendatzen, adinez gorako pertsoneri baizik, abentura eta misterioa gustuko duituzten pertsoneri. Ulerterraza ez izanagatik ere, normalean ikusten ditugun istorioekin konparatuz guztiz desberdina delako, adin orotako pertsonentzat zuzendua eta inork espero ez duen amaiera sinestezinarekin.

## Bibliografia

*Odolbildua*, Josu Landa. Susa narratiba.

## Webgrafia

- <http://kritikak.armiarma.com/?p=525>
- <http://atalak.net/ikasgela/nola-egin/il-gida>
- <http://www.atalak.net/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/amaren-eskuak-2/amaren-eskuak-mz.pdf>
- <http://www.atalak.net/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/sisifo-maite-minez-2/sisifo-maite-minez-jf.pdf>
- <http://www.atalak.net/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/sisifo-maite-minez-2/sisifo-maite-minez-sm.pdf>
- [http://eu.wikipedia.org/wiki/Josu\\_Landa](http://eu.wikipedia.org/wiki/Josu_Landa)
- <http://www.euskaraz.org/donostia/idazleak/idazleak/00060.htm>
- <http://zubitegia.armiarma.com/?i=53>
- <http://www.argia.eus/albistea/josu-landak-odolbildua-deituriko-lehen-eleberria-kaleratu-du>
- <http://www.euskomedia.org/aunamendi/77728>
- <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1856/euskalgintzan-egiak-edo-egi-parte-batzuk-kontatzen-has-gintezke/inprimatu?ids=argia-astekaria/1856/euskalgintzan-egiak-edo-egi-parte-batzuk-kontatzen-has-gintezke/inprimatu>
- [http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)
- [http://es.wikipedia.org/wiki/Joe\\_Louis](http://es.wikipedia.org/wiki/Joe_Louis)